ee) Reciclado: toda operación de valorización mediante la cual los materiales de residuos son transformados de nuevo en productos, materiales o sustancias, tanto si es con la finalidad original como con cualquier otra finalidad. Incluye la transformación del material orgánico, pero no la valorización energética ni la transformación en materiales que se vayan a usar como combustibles o para operaciones de relleno.

ff) Valorización: cualquier operación cuyo resultado principal sea que el residuo sirva a una finalidad útil al sustituir a otros materiales, que de otro modo se habrían utilizado para cumplir una función particular o que el residuo sea preparado para cumplir esa función en la instalación o en la economía en general.

EK\CV GAO-I-2025-08208

gg) Ezabaketa: balorizazioa ez den eragiketa oro, baita eragiketa horren bigarren ondorio gisa substantzien edo materialen aprobetxamendua –trataturiko hondakinaren pisuaren % 50 gainditzen ez badute– edo aprobetxamendu energetikoa lortzen bada ere. III. eranskinean ezabatze-eragiketen zerrenda ez-exhaustiboa ageri da.

4. artikulua. Eskumena.

1. 7/2022 Legearen, apirilaren 8koaren, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautzekoak eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoaren, 12.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Mankomunitateari dagokio, unean-unean hura osatzen duten udalerrien lurralde-eremuan, etxeko hondakinak biltzea eta garraiatzea, ordenantza honetan ezarritako moduan, lege horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hala badagokio onetsitako legeetan eta plangintza-tresnetan eta ekoizlearen erantzukizun hedatuaren alorreko sektoreko araudian ezarritako esparru juridikoari jarraituz.

Mankomunitatean nahitaezko zerbitzu gisa egingo du etxeetan, saltokietan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinen bilketa eta garraioa, baita bide publikoak, berdeguneak eta jolas-, aisia- edo astialdi-guneak garbitzetik sortutako hondakinak, ordenantza honek xedatutako moduan eta estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak hondakinei eta tokiko araubideari dagokienez ezarritakoari jarraituz.

2. Mankomunitateak ordenantza honek zehaztutako merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak kudeatu ahalko ditu, hargatik eragotzi gabe hondakin horien ekoizleek beraien kabuz kudeatu ahal izatea, 7/2022 Legean, apirilaren 8koan, ezarritako moduan. Hala eta guztiz ere, Mankomunitateak, era arrazoituan eta hondakinen kudeaketarako ekonomiaren eta ingurumenaren aldeko efizientzia- edo eraginkortasun-irizpideetan oinarrituta, hondakin ekoizleak Mankomunitatearen kudeaketa-zerbitzura nahitaez sartzera behartu ahalko ditu.

3. Mankomunitateari dagokio jagoletza- eta ikuskaritza-ahalmena, baita zehapen-ahalmena ere, aurreko apartatuen arabera erabilitako eskumenen eremuan, ordenantza honen III. tituluan xedatutakoari jarraituz.

4. Mankomunitateak kontzientziazio publikoko kanpainak egingo ditu, bereziki hondakinen hierarkiari, bilketa bereiziari, hondakinen prebentzioari eta zabor soltearen isurketak murrizteari buruzkoak, eta gai horiek hezkuntzan eta prestakuntzan txertatuko ditu.

5. artikulua. Zerbitzu-prestazioa.

1. Mankomunitateak ordenantza honetan eta hura garatzeko tresnetan jasotako hondakinak biltzeko zerbitzuak emango ditu, banaka edo taldean, tokiko araubidearen araudian ezarritako edozein kudeaketa-eratan.

2. Etxeko hondakin arriskutsuen edo haien ezaugarri bereziak direla-eta kudeatzen zailak diren edo garraioan, bilketan, balorizazioan edo ezabaketan nahasmenduak eragin ditzaketen hondakinetarako, Mankomunitateak honako obligazioren bat edo batzuk ezarri ahalko dizkie edukitzaileei:

a) Ezaugarri horiek ezabatzeko edo murrizteko neurriak hartzea.

b) Berariaz erabakitako moduan eta lekuan uztea.

c) Nahitaez haien kabuz kudeatzea, udal bilketa-sistematik kanpo, kudeatzaile baimendu bati edo kudeatzaile baimendu bati ematea bermatzen duen jasotzaile erregistratu bati emanez, baldin eta Mankomunitatean aurreikusitako bitartekoen bidez jaso ezin badira. Neurri hori ezingo da etxeetan sortutako etxeko hondakinetarako hartu, non eta ez dagoen hori zehazten duen araudi espezifikorik. Hala ere, haien edukitzaileek erabaki

gg) Eliminación: cualquier operación que no sea la valorización, incluso cuando la operación tenga como consecuencia secundaria el aprovechamiento de sustancias o materiales, siempre que estos no superen el 50 % en peso del residuo tratado, o el aprovechamiento de energía. En el anexo III se recoge una lista no exhaustiva de operaciones de eliminación.

Artículo 4. Competencia.

1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 12.5 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular, corresponde a la Mancomunidad, en el ámbito territorial de los municipios que la integren en cada momento, la recogida y el transporte de los residuos domésticos en la forma en que establezca esta ordenanza, de conformidad con el marco jurídico establecido en la citada ley, en las leyes e instrumentos de planificación que, en su caso, aprueben la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la normativa sectorial en materia de responsabilidad ampliada del productor.

La Mancomunidad prestará, como servicio obligatorio recogida y el transporte de los residuos domésticos generados en los hogares, comercios y servicios, así como de los residuos procedentes de limpieza de vías públicas, zonas verdes, y áreas recreativas, de ocio o esparcimiento, en la forma en que se establece en la presente Ordenanza y de acuerdo con lo establecido en la normativa estatal y autonómica sobre residuos y sobre régimen local.

2. La Mancomunidad podrá gestionar los residuos comerciales no peligrosos en los términos que establezca esta ordenanza, sin perjuicio de que los productores de estos residuos puedan gestionarlos por sí mismos en los términos previstos en la Ley 7/2022, de 8 de abril. No obstante, la Mancomunidad podrá imponer, de manera motivada y basándose en criterios de mayor eficiencia y eficacia en términos económicos o ambientales en la gestión de residuos, la incorporación obligatoria de los productores de residuos al sistema de gestión de la Mancomunidad.

3. Corresponde a la Mancomunidad la potestad de vigilancia e inspección y la potestad sancionadora en el ámbito de las competencias que ejerza de acuerdo con los apartados anteriores y según lo dispuesto en el Título III de la presente ordenanza.

4. La Mancomunidad realizará campañas de concienciación pública, en particular sobre la jerarquía de residuos, la recogida separada, la prevención de residuos y la reducción de los vertidos de basura dispersa, así como la inclusión de estas cuestiones en la educación y la formación.

Artículo 5. Prestación de los servicios.

1. La Mancomunidad prestará los servicios de recogida de residuos contemplados en la presente Ordenanza, y en sus instrumentos de desarrollo, de manera individual o agrupada y bajo cualquiera de las formas de gestión previstas en la normativa de régimen local.

2. En el caso de residuos domésticos peligrosos o de residuos domésticos cuyas características especiales dificulten su gestión o puedan producir trastornos en el transporte, recogida, valorización o eliminación, la Mancomunidad podrá imponer a sus poseedores alguna o todas de las siguientes obligaciones:

a) Que adopten medidas para eliminar o reducir dichas características.

b) Que los depositen en la forma y lugar que específicamente se haya decidido.

c) Que los gestionen necesariamente por sí mismos y al margen del sistema de recogida municipal, mediante la entrega a un gestor autorizado o a un recogedor registrado que garantice la entrega a un gestor autorizado, en el caso de que no puedan ser recogidos por los medios previstos por la Mancomunidad. No se podrá adoptar esta medida respecto de los residuos domésticos generados en los hogares, salvo que una normativa

EK\CV GAO-I-2025-08208

dezakete beren borondatez hondakinen kudeatzaile bati zuzenean ematea, ordenantza honen II. kapituluko II. tituluan jasotako kasuetan.

3. Larrialditzat edo ezinbesteko kasutzat jotako egoeretan, bilketa-zerbitzua normaltasunez eman ezin bada, Mankomunitateak aurretik hala egiaztatu, adierazi eta jakinarazi ondoren, zerbitzua aldi baterako aldatu edo eten ahalko da. Horrelakoetan, erabiltzaileek hondakinak uzteari laga behar diote, harik eta zerbitzua bere onera itzuli arte edo kasuan kasuko jarraibideak eman arte. Salbuespen horiek aplikatzeak inola ere ez du inongo kalte-ordainetarako eskubiderik emango, ezta erabiltzaileek zerbitzu-prestazioagatik ordaindu beharreko zenbatekoa txikitzekorik ere, ordenantza honen 8. artikuluari jarraituz.

6. artikulua. Erabiltzaileen obligazioak eta hondakinen titulartasuna.

1. Udal bilketa-zerbitzuaren erabiltzaileak diren hondakinekoizleek honako obligazio hauek dituzte:

a) Hondakinen bolumena murriztea eta poltsen eta edukiontzien gaitasunari ahal besteko probetxua ateratzeko moduan uztea. Kartoizko ontziak tolestuta utzi beharko dira, ordenantza honen 19. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

b) Hondakinak jatorrian ondo bereiztea, ordenantza honetan ezarritako sailkapenaren arabera. Kalitate handiko birziklapena sustatuko da, industriako prozesuetan lehengai birjinak ordezteko adinako kalitatezko produktuak eta materialak eskuratzeko. Autoritate eskudunek erregelamenduz ezarri ahalko dute frakzioetako bakoitzeko material desegokien gehienezko ehunekoa, bilketa-sistemaren kalitate-maila ebaluatzeko eta material desegokiak murrizteko mekanismoak txertatzeko.

c) Zehaztutako frakzioetako hondakinak poltsa bereizi eta itxietan uztea, frakzio bakoitzerako (beira eta papera eta kartoia izan ezik), koloreka banatutako edukiontzien barruan, ordenantza honen 14. artikuluan xedatzen den moduan. Poltsa horiek haien edukiari eusteko eta hura osorik isolatzeko adinako erresistentzia izan beharko dute.

d) Hondakinak uzteko eta emateko ordutegiak betetzea. Hala dagokionean, edukiontziak bide publikora ateratzea zerbitzu publikoak jaso ditzan, Mankomunitateak ezarritako orduetan eta lekuetan.

e) Bide publikoan edo erabilera publikoko guneetan (hondartzak, parkeak, lorategiak eta abar) sortutako hondakinak edo zaborrak paperontzietan edo horretarako jarritako edukiontzietan uztea. Halakorik ez badago, hurbilen dauden edukiontzietan edo prestatutako lekuetan utzi beharko dituzte, haien frakzioaren eta nolakotasunaren arabera.

f) Edukiontzi bat beteta badago, hondakinak ez dituzte edukiontzi jakin horretan edo bide publikoan utzi beharko; aitzitik, hondakinak dagokion frakzioaren edukiontzi hurbilenera eraman beharko dituzte, edo, bestela, edukiontzi hori hustu arte itxaron beharko dute.

2. Ordenantza honen 4. artikuluari jarraituz Mankomunitatearen bilketa-zerbitzua ez darabilten merkataritza-hondakin ezarriskutsuen ekoizleek hondakinak jatorrian bereizi beharko dituzte, frakzioen arabera, eta araudi aplikagarriaren arabera kudeatu beharko dituzte. Halaber, Mankomunitateari dokumentuz frogatu beharko diote hondakin horiek era egokian kudeatu direla, 7/2022 Legearen 20.3. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera. Horretarako, honako hau egin beharko dute:

a) Hondakin horiek jatorrian bereizi, haien eskutan dauden bitartean higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan izan, eta hondakinen kudeatzaileei frakzioen arabera behar bezala bereizita eman, araudi aplikagarriak xedatutakoari jarraituz.

específica así lo establezca, sin perjuicio de que sus poseedores decidan voluntariamente entregarlos directamente a un gestor de residuos en los supuestos contemplados en el capítulo II del título II de esta Ordenanza.

3. En aquellas situaciones consideradas como de emergencia o de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio de recogida de manera normal, y previa constatación, declaración y comunicación por la Mancomunidad, se podrá alterar o suspender temporalmente el servicio, debiendo en estos casos los usuarios abstenerse de depositar sus residuos hasta el momento en el que se normalice el servicio o hasta que se dicten en cada caso las instrucciones oportunas. En ningún caso la aplicación de estas excepciones dará derecho a indemnización o reducción del importe que deban abonar los usuarios por la prestación de los servicios, de acuerdo con el artículo 8 de la presente Ordenanza.

Artículo 6. Obligaciones de los usuarios y titularidad de los residuos.

1. Los productores de residuos que sean usuarios del servicio de recogida municipal están obligados a:

a) Reducir el volumen de los residuos y depositarlos de tal forma que se aproveche la capacidad de las bolsas y contenedores. En el caso de los envases de cartón, deberán depositarse plegados, de acuerdo con lo previsto en el artículo 19 de esta Ordenanza.

b) Separar correctamente los residuos en origen de acuerdo a las fracciones establecidas en la presente Ordenanza. Se promoverá el reciclado de alta calidad, de forma que se obtengan productos y materiales con calidad suficiente para sustituir a las materias primas vírgenes en procesos industriales. Las autoridades competentes podrán establecer reglamentariamente el porcentaje máximo de impropios presente en cada una de las fracciones, con el fin de evaluar los niveles de calidad de los sistemas de recogida e introducir mecanismos de reducción de impropios.

c) Presentar los residuos de las fracciones establecidas en bolsas diferentes y cerradas para cada fracción (salvo las de vidrio y papel-cartón), debiendo depositarlas en el interior de los correspondientes contenedores diferenciados por el color, según se determina en el artículo 14 de la presente ordenanza. Estas bolsas deberán tener la suficiente resistencia para la contención y aislamiento íntegro de su contenido.

d) Cumplir con los horarios de depósito y entrega de residuos. Cuando sea de aplicación, sacar los contenedores a la vía pública para su recogida por el servicio público en las horas y lugares establecidos por la Mancomunidad.

e) Depositar los residuos o desperdicios generados en la vía o en áreas de disfrute público (playas, parques, jardines, etc.), en las papeleras o en los contenedores habilitados al efecto. De no haberlos, deberán depositarlos en los contenedores o lugares habilitados más próximos, según su fracción y naturaleza.

f) Ante la presencia de un contenedor lleno, deberán abstenerse de efectuar los depósitos de residuos en ese contenedor concreto o en la vía pública, debiéndose en tal caso llevar los residuos a los contenedores más cercanos de la fracción correspondiente o esperar a su vaciado.

2. Los productores de residuos comerciales no peligrosos que no utilicen el servicio de recogida de la Mancomunidad de acuerdo con el artículo 4 de la presente Ordenanza, deberán separar en origen, por fracciones, y gestionar los residuos de conformidad con la normativa aplicable, y acreditar documentalmente a la Mancomunidad la correcta gestión de tales residuos, de acuerdo con lo establecido en el segundo párrafo del artículo 20.3 de la Ley 7/2022. A tal fin deberán:

a) Separar en origen y mantener los citados residuos en condiciones adecuadas de higiene y seguridad mientras se encuentren en su poder, y entregarlos en condiciones adecuadas de separación por fracciones a los gestores de residuos, de acuerdo con lo que disponga la normativa aplicable.

EK\CV GAO-I-2025-08208

b) Hondakin horien bilketa eta tratamendu egokiaren egiaztagiria eduki eta Mankomunitateari bidali, baita autonomia-erkidegoan hondakinen eskumena duen organismoari ere, hala eskatzen badu.

Dokumentazioak apartatu honetan araututako hondakinen baten kudeaketa okerra edo akastuna agerian uzten badu, berehala konpondu beharko da, gehienez ere hilabeteko epean; bestela, ekoizlea Mankomunitatearen bilketa-zerbitzuan sartu beharko da.

3. Mankomunitatearen eskumeneko hondakinek, ordenantza honetan araututakoek, beti izango dute titular arduradun bat, hau da, haien ekoizlea edo edukitzailea.

Erantzukizun administratibotik salbuetsita egongo dira soilik hondakinok Mankomunitateari ematen dizkiotenak, hark kudea ditzan, ordenantza honetan eta gainerako araudi aplikagarrian jasotako preskripzioei jarraituz. Izan ere, une horretan, Mankomunitatea izango da haien jabea. Salbuetsita gelditzen dira, halaber, hondakin horiek kudeatzaile baimendu edo erregistratu izaera duen pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkiotenak, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

7. artikulua. Baimendu gabeko jarduketak eta hondakinak abandonatzeari eta oker emateari lotutako obligazioak.

1. Galarazita dago:

a) Hondakinak bide publikoan uztea edo abandonatzea, Mankomunitatearen lurralde-eremuko edozein lekutan, edo hondakin-mota jakin horretarako ez diren edukiontzietan, edo Mankomunitateak zehaztutako lekuetatik kanpo.

b) Hondakinak edukiontzietan ordenantza honek araututakoaren aurka uztea.

c) Bide publikoan edo Mankomunitateak frakzioetarako jartzen dituen edukiontzien ondoan etxekoak ez diren hondakinak abandonatzea, adibidez, paletak, obra-hondakinak edo antzekoak.

d) Hondakin txikiak espazio publikoetan berariaz jarritako paperontzietatik kanpo uztea, esaterako, paperak, txikleak, zigarrokinak, karameluak, fruitu-azalak eta antzeko zaborrak, eta paperontzietan poltsa barruan botatzea bilketa-zerbitzu espezifiko bat ezarria duten hondakinak.

e) Edukiontziak edo haien edukia manipulatzea, paperontziak edo bestelako edukiontziak iraultzea edo haien lekutik ateratzea eta handik mugitzea.

f) Edukiontziak ordenantza honetan ezarritako xedeetarako ez beste batzuetarako erabiltzea.

g) Hondakin solidoak edo likidoak zuzenean saneamendusarean isurtzea.

h) Hondakinak ateratzea, bilatzea edo biltzea ordenantza honetan ezarritako moduan zerbitzu mankomunatuen esku utzi ondoren.

2. Etxe-abere bat duenak, itsu-txakurren jabe diren itsuek izan ezik, hark bide publikoan eta espazio publikoetan egindako gorotzak bildu beharko ditu, eta horretarako ezarritako edukiontzietan bota, edo, bestela, espazio publikoetan ezarritako paperontzietan.

8. artikulua. Hondakinen bilketa-zerbitzuen finantzaketa.

1. Ordenantza honetan ezarritako Mankomunitatearen hondakinen kudeaketa-zerbitzuen finantzaketa tasak arautzeko dagokion ordenantza fiskalean eta/edo zerga-alorrekoak ez diren ondare-prestazio publikoak arautzeko ordenantzan zehaztuko dira; dena den, bilketa-zerbitzuak alde finantzariotik jasangarriak izango dira, eta kostuak jasanaraztean «kutsatzen duenak ordaintzen du» printzipioa aplikatu beharko da.

b) Disponer del documento acreditativo de la correcta recogida y tratamiento de tales residuos, y remitírselo a la Mancomunidad y al organismo competente en residuos de la Comunidad Autónoma cuando sea requerido para ello.

Si de la documentación se manifiesta una gestión incorrecta o deficitaria de alguno de los residuos regulados en este apartado, esta deberá remediarse en el plazo de 1 mes, de lo contrario el productor deberá adherirse al servicio de recogida de la Mancomunidad.

3. Los residuos de competencia de la Mancomunidad regulados en esta Ordenanza tendrán siempre un titular responsable, cualidad que corresponderá al productor o al poseedor de los mismos.

Solo quedarán exentos de responsabilidad administrativa quienes entreguen a la Mancomunidad los residuos, para su gestión, de conformidad con las prescripciones contenidas en esta Ordenanza y demás normativa aplicable, adquiriendo la Mancomunidad en ese momento la propiedad sobre los mismos. Se exceptúan también de dicha responsabilidad quienes entreguen tales residuos a una persona física o jurídica que tenga la condición de gestor autorizado o registrado, de acuerdo con lo previsto en esta Ordenanza.

Artículo 7. Actuaciones no permitidas y obligaciones en relación con el abandono y la entrega incorrecta de los residuos.

1. No está permitido:

a) Depositar o abandonar residuos en la vía pública o en cualquier lugar del ámbito territorial de la Mancomunidad, o en contenedores no habilitados para ese tipo de residuo en cuestión, o en lugares diferentes a los especificados por la Mancomunidad.

b) Depositar residuos en contenedores contraviniendo lo dispuesto en la presente Ordenanza.

c) Abandonar en la vía pública o junto a los contenedores para las distintas fracciones que instala la Mancomunidad residuos no domésticos como palets, escombros, o similares.

d) Depositar en lugares distintos a las papeleras instaladas al efecto en los espacios públicos, residuos de pequeño volumen tales como papeles, chicles, colillas, caramelos, cáscaras y desperdicios similares, así como depositar en las papeleras, agrupados en bolsas, residuos para los que se haya establecido un servicio específico de recogida.

e) Manipular contenedores o su contenido, así como volcar o arrancar papeleras u otro tipo de contenedores y desplazarlos fuera de sus ubicaciones.

f) Utilizar los contenedores para fines distintos a los previstos en la presente Ordenanza.

g) Evacuar directamente residuos sólidos o líquidos a la red de saneamiento.

h) Extraer, rebuscar o recoger los residuos una vez puestos a disposición de los servicios mancomunados en la forma establecida en esta Ordenanza.

2. El poseedor de un animal doméstico, con excepción de las personas invidentes que sean titulares de perros guía, deberá recoger las deposiciones evacuadas por éste en la vía pública y los espacios públicos y depositarlas en los contenedores identificados a tal fin o, en su defecto, en las papeleras instaladas en los espacios públicos.

Artículo 8. Financiación de los servicios de recogida.

1. La financiación de los servicios de gestión de residuos de la Mancomunidad previstos en la presente Ordenanza se establecerá en la correspondiente ordenanza fiscal reguladora de tasas y/u ordenanza reguladora de prestaciones patrimoniales públicas de carácter no tributario, en el bien entendido de que, en cualquier caso, los servicios de recogida serán financieramente sostenibles aplicando en la repercusión de costes el principio de «quien contamina paga».

EK\CV GAO-I-2025-08208

2. Mankomunitateak neurri ekonomikoak, finantzarioak eta zerga-arlokoak ezarriko ditu hondakinak sortzea prebenitzea, berrerabiltzea eta konpontzea sustatzeko, bilketa bereizia bultzatzeko, hondakinen kudeaketa hobetzeko, berrerabiltzeko prestatzetik eta birziklapenetik datozen produktuak merkatuan indartzeko, baita hondakinen sektorean berotegi-efektuko gasen isurpenak murritz daitezen laguntzeko ere.

3. Hondakinen sorreraren araberako ordainketa-sistemak eta bidezko tarifak sustatuko dira, hondakinen sortzaileei tasak eta tarifak benetan sortutako hondakinen kantitatearen arabera ezarriko dizkietenak eta/edo pizgarriak emango dituztenak hondakin birziklagarriak jatorrian bereizteko eta nahasitako hondakinak murrizteko.

II. TITULUA

HONDAKINAK BEREIZTEA, UZTEA ETA BILTZEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

9. artikulua. Bilketa-zerbitzuan sartutako jarduketak.

Honako jarduketa hauek sartzen dira bilketa-zerbitzuan:

a) Hala badagokio, hondakinak ibilgailuetara edo bilketarako bestelako bitartekoetara eramatea, dagozkien edukiontzietan edo sistema baliokideetan, baita horiek hustea eta jatorrizko puntuetara itzultzea ere.

b) Hondakinak kudeaketa-instalazio egokietara garraiatzea eta han deskargatzea.

c) Eragiketa horien ondorioz isuritako hondarrak kentzea.

d) Edukiontziak eta Mankomunitatearen bestelako bilketaguneak mantentzea, garbitzea eta ordeztea, erabilera esklusiboko edukiontziak salbu.

e) Bilketa-ibilgailuak mantentzea, garbitzea eta ordeztea.

10. artikulua. Hondakinen bereizketari eta bilketari buruzko informazioa.

Mankomunitateak bere webgunean argitaratuko ditu zerbitzu-prestazioaren baldintzak, eta, bereziki, hondakinen frakzioak uzteko egunen eta ordutegien eta bilketa-modalitateen ingurukoak, baita bilketa-guneak eta haien baldintzak eta zerbitzua ondo erabiltzeko egoki iritzitako beste edozein informazio ere.

11. artikulua. Hondakinen bereizketari eta bilketari buruzko sentsibilizazioa, hezkuntza eta informazioa.

1. Mankomunitateak kanpainak, programak eta bestelako jarduketak egitea sustatuko du, herritarrak sentsibilizatzeko, hezteko eta informatzeko, kontsumo-ohituren, hondakinen sorrera murriztearen, horien jatorrian frakzioen arabera bereiztearen, dagozkien edukiontzietan uztearen eta zabor soltea sortzea prebenitzearen alorretan.

2. Mankomunitateak, hondakinen bilketa bereiziko obligazioak justifikatzeko eta bilketa hori hobetzea sustatzeko, sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina eta -jarduketetan, eta webgunearen bidez, informazioa emango du jasotako hondakinen frakzio bakoitzari ematen zaion azken tratamenduaren inguruan, baita hondakinen kudeaketatik eratorritako diru-sarreretan eta gastuetan duen eragin ekonomikoaren inguruan ere.

12. artikulua. Hondakinen sailkapena. Hondakin orokorrak.

1. Ordenantza honen ondoreetarako, Mankomunitatearen eskumeneko hondakinak orokorren eta berezien artean sailkatzen dira, haien nolakotasunari eta aplikatzen zaizkien kudeaketa-sistemei erreparatuz.

2. La Mancomunidad establecerá medidas económicas, financieras y fiscales para fomentar la prevención de la generación de residuos, la reutilización y reparación, impulsar la recogida separada, mejorar la gestión de los residuos, impulsar y fortalecer los mercados de productos procedentes de la preparación para la reutilización y el reciclado, así como para que el sector de los residuos contribuya a la mitigación de las emisiones de gases de efecto invernadero.

3. Se fomentarán sistemas de pago por generación de residuos o tasas y tarifas justas, que impongan tasas y tarifas a los productores de residuos según la cantidad real de residuos generados y/o proporcionen incentivos para la separación en origen de los residuos reciclables y para la reducción de los residuos mezclados.

TÍTULO II

SEPARACIÓN, DEPÓSITO Y RECOGIDA DE RESIDUOS

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 9. Actuaciones incluidas en el servicio de recogida.

El servicio de recogida comprende las siguientes actuaciones:

a) En su caso, traslado de los residuos a los vehículos u otros medios de recogida, en los contenedores de residuos o sistemas equivalentes, así como el vaciado y devolución de estos últimos a sus puntos originarios.

b) Transporte y descarga de los residuos en las instalaciones de gestión adecuadas.

c) Retirada de los restos vertidos a consecuencia de las anteriores operaciones.

d) Mantenimiento, lavado y reposición de los contenedores y otros puntos de recogida de la Mancomunidad, con excepción de aquellos contenedores que sean de uso exclusivo.

e) Mantenimiento, lavado y reposición de los vehículos de recogida.

Artículo 10. Información sobre separación y recogida de residuos.

La Mancomunidad hará públicas en su página web las condiciones de prestación del servicio y, en especial, las relativas a los días y horarios de depósito y modalidades de recogida de las diferentes fracciones de residuos, condiciones y puntos de entrega, así como cualquier otra que estime conveniente para el correcto uso del servicio.

Artículo 11. Sensibilización, educación e información sobre separación y recogida de residuos.

1. La Mancomunidad promoverá la realización de campañas, programas y otro tipo de actuaciones para la sensibilización, educación e información de la ciudadanía en materia de hábitos de consumo, reducción en la generación de residuos, separación de éstos por fracciones en origen y su depósito en los contenedores correspondientes, así como de prevención en la generación de la basura dispersa.

2. La Mancomunidad, con objeto de justificar las obligaciones de recogida separada de residuos y promover su mejora, informará en las campañas y actuaciones de sensibilización e información, y a través de su página web, del tratamiento final que se da a cada una de las fracciones de residuos recogidas y su repercusión económica en los ingresos y gastos derivados de la gestión de los residuos.

Artículo 12. Clasificación de residuos. Residuos generales.

1. A efectos de la presente ordenanza, los residuos de competencia de la Mancomunidad se clasifican en generales y especiales, en base a su naturaleza y los sistemas de gestión que se aplican.

EK\CV GAO-I-2025-08208

2. Hondakin orokorrak une bakoitzean indarrean dagoen legediak edo ordenantza honek zehazten dituen frakzioetan banatu beharko dira, edo, bestela, Mankomunitateak bere eskumenen arabera zehaztutakoetan.

3. Bilketa zerbitzu mankomunatu arruntek egingo dute, une bakoitzean ezarritako baldintzen, txanden, egunen eta ordutegien arabera, horretarako jarritako edukiontziak erabiliz.

4. Gaikako bilketa errazteko, etxeko, merkataritzako eta industriako hondakin orokorrak jatorrian bereizita eman beharko dira, jarraian zehaztutako frakzioetan:

— Biohondakina (materia organikoa).

— Ontzi arinak.

— Papera eta kartoia.

— Beirazko ontziak.

— Etxeko olio erabiliak.

— Oihal-hondakinak.

— Pilak eta metagailuak.

— Errefusa.

5. Errefusa da bilketa bereizia egin ondoren gelditzen den etxeko hondakinen frakzioa. Frakzio horretan sartuko dira Mankomunitatearen arabera bilketa bereiziari atxiki gabeko hondakin guztiak. Erabat debekatuta dago errefusa gainerako frakzioen edukiontzietan uztea.

6. Hondakinak nahitaez utzi beharko dira Mankomunitateak jarritako edukiontzi espezifikoen barruan, ordenantza honek ezarritako moduan.

7. Mankomunitateak ordenantza honetan ezarritako hondakinen bilketarako bestelako sistema osagarriak ere izan ahalko ditu, eta arestian zerrendatutako frakzioez gain besteren bat gehiago bereiztea ere planteatu ahalko du; halaber, frakzioak biltzeko sistema alternatibo posibleak ere zehaztu ahalko ditu.

8. Hondakin horiek, oro har, zerbitzu mankomunatuen bitartez bilduko dira, edo, bestela kudeatzaile baimenduei emango zaizkie.

9. Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboei (SCRAP) kontsulta egingo zaie, haien produktuen hondakinen kudeaketa finantzatzeari eta antolatzeari eragiten dieten neurriak ezarri aurretik, SCRAPen eta Mankomunitatearen artean sinatutako hitzarmenekin bat datozela bermatzeko.

13. artikulua. Hondakin bereziak.

1. Honako hauek jotzen dira hondakin berezitzat:

a) Hondakin handiak; altzariak, etxetresna elektriko handiak, tresneria eta lastairak barne.

b) Gailu elektrikoen eta elektronikoen hondakinak (GEEH).

c) Etxeko hondakin arriskutsuak.

d) Sega- eta kimaketa-lanetan eta lorezaintzako bestelako jardueretan sortutako landare-hondakinen bilketa berezia, Mankomunitatearen eskumenekoa.

e) Obra txikietatik eta etxeko konponketetatik datozen eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -zaborren bilketa bereizia, Mankomunitateak onetsitako mugekin.

f) Etxe-abere hilak.

g) Medikamentuen eta haien ontzien hondakinak.

2. Los residuos generales deberán separarse en las fracciones que establezca en cada momento la legislación vigente, la presente ordenanza o aquellas que se determinen por la Mancomunidad conforme a sus competencias.

3. La recogida se efectuará por los servicios ordinarios mancomunados según las condiciones, turnos, días y horarios que se establezcan en cada momento haciendo uso del parque de contenedores instalados al efecto.

4. Al objeto de favorecer la recogida selectiva, los residuos generales de origen doméstico, comercial e industrial deberán presentarse separados desde su origen en las fracciones que se especifican a continuación:

— Biorresiduo (materia orgánica).

— Envases ligeros.

— Papel y cartón.

— Envases de vidrio.

— Aceites domésticos usados.

— Residuos textiles.

— Pilas y acumuladores.

— Resto.

5. La fracción resto es la fracción de los residuos de origen doméstico que se obtiene una vez efectuadas las recogidas separadas. Los materiales que debería contener esta fracción son todos aquellos residuos que no estén sujetos a recogidas separadas por parte de la Mancomunidad. Queda terminantemente prohibido depositar en la fracción resto residuos de las anteriores fracciones.

6. Será obligatorio depositar los residuos separadamente en el interior de los contenedores específicos suministrados por la Mancomunidad, en la forma establecida en esta ordenanza.

7. La Mancomunidad podrá disponer de otros sistemas complementarios de recogida de residuos contemplados en la presente ordenanza, así como plantear una mayor segregación de alguna de las fracciones anteriores, así como determinar los posibles sistemas alternativos de recogida de las fracciones resultantes.

8. La recogida de estos residuos se efectuará generalmente a través de servicios mancomunados o mediante la entrega a gestores autorizados.

9. Se consultará a los Sistemas Colectivos de Responsabilidad Ampliada del Productor (SCRAPS) con carácter previo a la adopción de las medidas que afecten a la financiación y la organización de la gestión de los residuos de sus productos a fin de asegurar su coherencia con los convenios suscritos o por suscribir entre el SCRAP y la Mancomunidad.

Artículo 13. Residuos especiales.

1. Se consideran residuos especiales los siguientes:

a) Voluminosos, incluidos muebles, grandes electrodomésticos, enseres y colchones.

b) Residuos de aparatos eléctricos y electrónicos (RAEE).

c) Residuos de origen doméstico con característica de peligrosidad.

d) Recogida especial de residuos vegetales, de competencia de la Mancomunidad, generados en las actividades de siega, poda y otras actividades de jardinería.

e) Recogida separada de residuos y escombros de construcción y demolición procedentes de obras menores y reparación domiciliaria con las limitaciones aprobadas por la Mancomunidad.

f) Animales domésticos muertos.

g) Residuos de medicamentos y de sus envases.

EK\CV GAO-I-2025-08208

2. Hondakin horiek, oro har, zerbitzu espezifikoen bitartez bilduko dira, lehen aipatutakoetatik kanpo, adibidez, garbigunesarean, atez ateko sistemako merkataritzako eta industriako bilketaren bidez edo kudeatzaile baimenduei emanez.

3. Mankomunitateak edonoiz aldatu ahalko ditu bilketa eta uzte berezia aplikatzen zaien hondakinak.

4. Zerbitzu horien erabiltzaileek dagozkien hondakinak Mankomunitateak edo zerbitzu-emaileak adierazitako moduan utzi beharko dituzte, ezarritako datak, ordutegiak eta bestelako baldintzak errespetatuz.

5. Bilketa arruntaren eta bereziaren arteko aldeak zerbitzua emateko modua besterik ez du identifikatzen. Dena den, bereizketa horrek ez du eragozten hondakin batzuk bi era horietan bil daitezkeela, kasu bakoitzaren egoera zein den.

II. KAPITULUA. HONDAKINAK UZTEKO ONTZIAK

14. artikulua. Edukiontzi-motak, haien ezaugarriak eta xedapen orokorrak.

1. Ordenantza honen ondoreetarako, honela sailkatuta daude hondakinak biltzeko edukiontziak:

a) Albotik kargatzeko erabilera kolektiboko edukiontziak, hermetikoak eta gaitasun handikoak, edukia automatikoki husten uzten dutenak, kamioi biltzaileetan eskuz inola ere manipulatu gabe.

b) Atzetik kargatzeko edukiontzia, edukia automatikoki husten uzten ez duena, eta langileek ibilgailu biltzailearen barruan husteko eskuz manipulatu behar dutena.

Hala eta guztiz ere, Mankomunitateak eskubidea du hondakinen ekoizleek eskuratutako kuboak edo edukiontziak bilketa egiteko bitarteko materialekin bateragarria den bilketa mekanizaturako egokiak izan daitezela exijitzeko.

2. Edukiontziak gaika jasoko dituzten hondakin-moten arabera identifikatuko dira, honela:

a) Marroia: biohondakina edo materia organikoa.

b) Horia: metalezko, plastikozko edo brik estiloko ontzi arinak.

c) Urdina: papera eta kartoia.

d) Berdea: beirazko ontziak.

e) Zuria: oihalak.

f) Laranja: etxeko olio erabilia.

g) Grisa: errefusa.

Deskribatutako koloreez gain, frakzio bakoitzeko edukiontziek bakoitzaren frakzioa errazago identifikatzeko errotuluak, itsasgarriak eta serigrafiak izango dituzte.

3. Mankomunitateak ahalmena izango du edukiontzietan erabiltzailea identifikatzen duten sarbide-kontroleko sistemak, frakzioren batean material desegokiak uztea zailtzeko sistemak eta hondakinak ateratzea zailtzeko sistemak ezartzeko.

4. Mankomunitateak frakzioren bat biltzeko edo bereizteko bestelako edukiontziren bat zehaztu edo onetsi ahalko du, baita haren funtzionamendua ere, araudiak zehaztutako bereizketa-helburuak erdieste aldera.

2. La recogida de estos residuos se efectuará generalmente a través de servicios específicos, fuera de los habituales anteriormente mencionados, como pueden ser la red de garbigunes, la recogida comercial e industrial por sistema puerta a puerta o la entrega a gestores autorizados.

3. La Mancomunidad podrá modificar en cualquier momento los residuos susceptibles de recogida especial y/o depósito.

4. Los usuarios de estos servicios deberán depositar los residuos de que se trate en el lugar y en la forma que la Mancomunidad o el prestador del servicio les hayan indicado, respetando las fechas, horarios y otras condiciones que se hayan establecido.

5. La diferenciación entre recogida ordinaria y especial se hace únicamente a efectos de identificar la forma en que se presta el servicio. No obstante, esta diferenciación no impide que determinados residuos puedan ser recogidos de las dos formas, en función de la situación puntual de cada caso.

CAPÍTULO II. RECIPIENTES PARA EL DEPÓSITO DE LOS RESIDUOS

Artículo 14. Clases de contenedores, características y disposiciones generales.

1. A efectos de esta ordenanza los contenedores para la recogida de residuos generales se clasifican en:

a) Contenedores de carga lateral para uso colectivo, herméticos de gran capacidad, que permiten un vaciado de su contenido de forma automática y sin ninguna manipulación manual en los camiones recolectores.

b) Contenedor de carga trasera que no permite un vaciado de su contenido de forma automática, siendo necesaria la manipulación manual por parte de operarios para su vaciado en el interior del vehículo recolector.

En cualquier caso, la Mancomunidad se reserva el derecho a exigir que los cubos o los contenedores adquiridos por los generadores de residuos, sean aptos para su recogida mecanizada compatible con los medios materiales utilizados para llevar a cabo la misma.

2. Los contenedores quedarán identificados en base al tipo de residuos que puedan recepcionar selectivamente de la siguiente forma:

a) Color marrón: biorresiduo o materia orgánica.

b) Color amarillo: envases ligeros de metal, plástico o tipo brick.

c) Color azul: papel y cartón.

d) Color verde: envases de vidrio.

e) Color blanco: textil.

f) Color naranja: aceite doméstico usado.

g) Color gris: para la fracción resto.

Además de los colores descritos, los recipientes de cada fracción se identificarán también con las rotulaciones, pegatinas y serigrafías que faciliten la identificación de la fracción a la que están destinados.

3. La Mancomunidad se reserva la facultad de disponer en los contenedores de sistemas de control de acceso con identificación del usuario, de sistemas que dificulten el depósito de residuos impropios en alguna de las fracciones existentes, así como de sistemas que impidan la extracción de residuos.

4. La Mancomunidad podrá determinar o aprobar cualquier otro tipo de contenedor para la recogida o segregación de alguna de las fracciones, así como su funcionamiento, con el objetivo de lograr los objetivos de separación que determine la normativa.

EK\CV GAO-I-2025-08208

15. artikulua. Gune bakoitzeko ontzien tipologia eta bilketa-sistemak.

1. Etxeko eta merkataritzako hondakin orokorrak biltzeko, lehentasuna izango du bilketako bost frakzio nagusiak batzen dituzten bilketa-uharteak ezartzea: materia organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia, beirazko ontziak eta errefusa.

2. Bilketa bide publikoan jarritako erabilera kolektiboko eta albotik kargatzeko edukiontzien bitartez egingo da. Arrazoi teknikoak direla-eta posible ez den guneetan (landagunea, gune historikoa eta abar), bilketa-zerbitzua atzetik kargatzeko edukiontzien edo bilketa-kuboen bidez egingo da.

3. Mankomunitateak une bakoitzean erabakiko du edukiontzien sistema egokiena zein den hondakinen frakzio eta gune bakoitzerako, zerbitzuaren beharrei, egokitasunari eta efizientziari erreparatuz.

4. Mankomunitateak erabaki ahalko du arestian deskribatutako edukiontzien edozein mota erabiltzea bere jarduketa-eremuko edozein gunetan.

16. artikulua. Arau komunak, emate-guneetan kokatutako albotik kargatzeko eta atzetik kargatzeko edukiontzien bidezko bilketa-zerbitzuaren erabiltzaileentzakoak.

1. Erabiltzaileek beren etxeen inguruetan kokatutako edukiontziak erabili beharko dituzte, eta hondakinak ezarritako ordutegietan utzi beharko dituzte.

2. Edukiontzietan, etxeko hondakin baimenduak ondo itxitako poltsetan utziko dira, salbu eta paperaren eta kartoiaren eta beiraren edukiontzietan, horietan poltsarik gabe utzi behar baitira. Ezingo dira erabili likidoak, obra-hondakinak, altzariak, tresneria, animalia hilak, gailu elektrikoen eta elektronikoen hondakinak eta/edo landare-produktuak –kimaketa- eta sega-hondarrak, moztutako adarrak eta abar– isurtzeko.

3. Baimendu gabeko hondakinak utzi eta bilketa-ibilgailuen sistema mekanikoetan, hidraulikoetan eta abarretan matxurak eraginez gero, konpontzeko gastua arau-haustea egin duen erabiltzaileari jasanaraziko zaio.

4. Edukiontzia erabili ondoren, estalkia itxita gelditu dela egiaztatu beharko da.

5. Hondakinak inola ere ez dira bide publikoan utziko, ezta edukiontzien inguruan ere, horiek beteta egon edo erabiltzea eragozten duen kalteren bat izan arren. Edukiontziak beteta badaude, hondakinak dagokion frakzioaren beste edukiontzi batzuetara eraman beharko dira, edo hura hustu arte itxaron beharko da.

6. Bizilagunei zaratagatik eragozpenik ez sortzeko, beira goizeko 8:00etatik aurrera utzi beharko da, eta ez gaueko 22:00etatik aurrera.

7. Gainerako frakzioetarako, Mankomunitateak frakzio bakoitza uzteko nahitaezko ordutegiak ezarriko ditu, eta ohiko bideen bitartez jakinaraziko eta zabalduko ditu. Horiek aldatu egin ahal izango ditu, eta, aldatuz gero, berriz jakinaraziko eta zabalduko ditu.

III. KAPITULUA. HONDAKIN OROKORRAK BEREIZTEA, UZTEA ETA BILTZEA

17. artikulua. Biohondakinak bereiztea, uztea eta biltzea.

Biohondakinen ekoizleek nahitaez bereizi beharko dituzte jatorrian, eta, aukeran:

a) Biohondakinak poltsa konpostagarrietan utzi, kolore marroiko edukiontzietan.

Poltsa konpostagarriek Europako EN 13432: 2000 araua bete beharko dute, edo, bestela, etxeko edo komunitateko konpostaren bidez biodegradatzeko Europako edo estatuko bestelako estandarrak.

Artículo 15. Tipología de recipientes en cada zona y sistemas de recogida.

1. A efectos de recogida de residuos generales de origen domiciliario y comercial, se priorizará la implantación de isletas de recogida que cuenten con las 5 principales fracciones de recogida: materia orgánica, envases ligeros, papel y cartón, envases de vidrio y fracción resto.

2. La recogida se realizará mayoritariamente mediante contenedores de carga lateral de uso colectivo en vía pública. En aquellas zonas en las que por motivos técnicos no sea posible (zona rural, cascos históricos, etc.) el servicio de recogida se prestará mediante contenedores y cubos de recogida de carga trasera.

3. La Mancomunidad determinará en cada momento el sistema de contenerización más adecuado para cada fracción de residuos y zona, atendiendo a las necesidades, adecuación y eficiencia del servicio.

4. La Mancomunidad puede establecer el uso de cualquiera de los tipos de contenedores descritos anteriormente en cualquier zona de su ámbito de actuación.

Artículo 16. Regulaciones comunes para los usuarios del servicio de recogida mediante contenedores de carga lateral y carga trasera ubicados en áreas de aportación.

1. Los usuarios deberán utilizar los contenedores ubicados en las inmediaciones de sus domicilios y depositar los residuos en los horarios establecidos.

2. En los contenedores se depositarán los residuos domésticos autorizados en bolsas perfectamente cerradas, salvo en el caso de los contenedores de papel-cartón y vidrio que deben depositarse sin bolsa. No podrán utilizarse para el vertido de líquidos, escombros, muebles, enseres, animales muertos, residuos de aparatos eléctricos y electrónicos y/o productos vegetales como restos de poda, siega, corta de ramas, etc.

3. El depósito de residuos no autorizados, que produzcan averías a los sistemas mecánico, hidráulico, etc. de los vehículos de recogida, dará lugar a la repercusión del coste de su reparación, al usuario que haya cometido la infracción.

4. Una vez utilizado el contenedor, se deberá asegurar que la tapa queda cerrada.

5. En ningún caso se depositarán residuos en la vía pública, incluidas las zonas próximas a los contenedores, aunque estos se encuentren llenos o presenten algún tipo de desperfecto que impidan su utilización. En el caso de estar los contenedores llenos, se deberán llevar los residuos a otros contenedores de la fracción correspondiente o esperar el vaciado.

6. Para evitar molestias a los vecinos por razones de ruido, el vidrio se deberá depositar a partir de las 8:00 horas de la mañana y no más tarde de las 22:00 horas de la noche.

7. Para el resto de las fracciones la Mancomunidad establecerá los horarios obligatorios para el depósito de las distintas fracciones y les dará publicidad y difusión a través de los canales habituales, pudiendo modificar los mismos, en cuyo caso les volverá a dar publicidad y difusión.

CAPÍTULO III. SEPARACIÓN, DEPÓSITO Y RECOGIDA DE LOS RESIDUOS GENERALES

Artículo 17. Separación, depósito y recogida de biorresiduos.

Los productores de biorresiduos deberán separarlos obligatoriamente en origen y alternativamente:

a) Depositar los biorresiduos, en bolsas compostables, en los contenedores identificados con el color marrón.

Las bolsas compostables deberán cumplir con la norma europea EN 13432: 2000 u otros estándares europeos o nacionales de biodegradación a través de compostaje doméstico o comunitario.

EK\CV GAO-I-2025-08208

Gainera, ekitaldi publikoen ondorioz sortutako biohondakinak ordenantza honen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera berariaz jarritako edukiontzietan utzi beharko dira.

b) Biohondakinen tratamendua in situ egin, etxeko konpostatzearen bitartez, baldin eta aurretiaz Mankomunitateari jakinarazi badiote, araudi aplikagarrian zehatutako obligazioak betetzeko eta metodo horren bitartez kudeatu dituzten biohondakinen kantitateak zenbatzeko.

Tratamendua etxeko edo komunitateko konpostatzearen bitartez in situ egiten duten biohondakinen ekoizleek Mankomunitateari estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak ezarritako informazio guztia eman beharko diote.

Halaber, Mankomunitateak etxeko konpostatzea egiten dutenen zerrenda eguneratu bat izango du, formatu elektronikoan.

18. artikulua. Ontzi arinak bereiztea, uztea eta biltzea.

1. Oro har, 1055/2022 Errege Dekretuaren 2.m) artikuluaren arabera etxeko ontzi-hondakintzat jotzen diren ontzi arinen hondakinak, hau da, plastikozko (edari-botilak, plastikozko botilak eta 7/2022 Legearen IV. eranskineko F apartatuan zerrendatutako plastikozko produktuak, etxeko ontzitzat jotzen direnak) eta metalezko (ferrikoa edo aluminikoa, bereziki kontserba-latak eta edari-latak) ontziak eta brikak nahitaez utzi beharko dira horretarako edukiontzietan edo horretarako identifikatutako sistema baliokideetan (zehazki, edukiontzietan uzten badira, edukiontzi horian utzi beharko dira).

2. Materia organikoa, esaterako, janari-hondarrak edo bestelako substantziak, dituzten botilak, potoak, latak eta bestelako ontziak guztiz hustu beharko dira utzi aurretik, substantzia horien hondarrak kentzeko.

3. Artikulu honetan zehaztutakoa hargatik eragotzi gabe, Mankomunitateak erabaki ahalko du 7/2022 Legearen IV. eranskineko E zatiak aipatzen dituen plastikozko botilak (hiru litrora arteko edari-botilak eta haien tapak eta tapoiak) bananduta bildu beharko direla, bereiz zein banatuta bildutako hondakinen beste frakzio batzuekin batera, Europako Batzordearen 2021eko urriaren 1eko 2021/1752 (EB) Egikaritze Erabakiaren 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Apartatu honetan ezarritakoa aplikagarria denean, Mankomunitateak ontzi-hondakin horiek uzteko bitarteko espezifikoak zehaztuko ditu.

19. artikulua. Papera eta kartoia bereiztea, uztea eta biltzea.

1. Etxeko hondakintzat jotzen diren paper- eta kartoi-hondakin garbiak (hala etxeko hondakintzat jotzen diren ontzi-hondakinak nola ontziak ez direnak, esaterako, prentsako papera, paperezko orriak eta abar) ahal bezain tolestuta utzi beharko dira horretarako urdinez identifikatutako edukiontzietan.

2. Kartoizko kutxak behar bezala moztu eta tolestuko dira, edukiontzietan sartu eta utzi ahal izateko.

